

Partidu Antikapitalista Berriaren funtsezko printzipioak

(Joseba Barriolak euskeratua)

Dokumentu honetan gure partiduaren oinarriaren osagairik funtsezkoenak zehazten dira. Horien inguruan bildu gara partidua osatzeko. Dokumentua, bere indar eta ahuleziekin, forma aldetiko inperfekzioekin, taldekako lan zabal baten emaitza da. Komiteetan egindako eztabaidetan proposatu diren ehundaka emendakinetatik abiatuz osatu da. Gure jardunbidea elikatzen duen demokrazia biziaren lehen saiakera izan da. Horretan jarriak gara denok.

Hau ez da egitasmo oso bat, zehatza, "manifestu" bat, baina gure erreferentziak laburbiltzen ditu: gaur egungo gizartearen kritika erradikala, gizarte horrekin hausteko asmoa, eta nahi dugun gizartearen eta hara iristeko estrategiaren printzipioak. Horiek dira gure nortasun agiria: kapitalismo globalizatuaren krisiaren aurrean erantzun bakarra XXI. mendeko sozialismo demokratiko, ekologiko eta feministaren aldeko borroka da, horren baitan erabakiko bait da gizadiaren geroa.

1.- Kapitalismoak gizadia eta planeta arriskuan jartzen ditu.

Sistema kapitalistak elkarreragiten dituzten krisiak sorrarazten ditu: elikaduraren krisia, ekonomikoa, finantziarioa, ekologikoa, energetikoa, osasun arlokoa, nazioarteko tentsioak eta gerrak... eta horien ondorioak dramatikoak dira beti. Mundializazioak, klase nagusiek lortzen dituzten etekinak handiagotzeko langile eta herrien kontrako ofentsibaren harian lerrotua, produkzio eredu kapitalista beraren egiturazko krisi sakonean murgildu gaitu. 1980. urte ezkeroztik, mundualizazioak esplotazioa areagotzen du eta langileen arteko lehia munduko lanaren nazioarteko zatiketa aregotuaren baitan, mota guztietako desberdintasunak areagotzen ditu, harreman imperialisten jokamoldean herrien ustiaketa iraunarazten du eta planetaren baliabideak ahitzen ditu, planeta bera desegiten du.

Kapitalaren nagusigoak dakarren hondamendiak egunerokotasun osoa ematen dio "sozialismo edota basakeria" hautaketari.

Etekinaren izenean, kapitalistek alperrikako merkantzien eta merkantzia arriskutsuen gain-produkzioa antolatzen dute, eta bitartean planetako biztanleen 3.000 milioitik gora, gizadiaren erdia bada, egunero euro bat baino gutxiagorekin ez-moldatu beharrean dago. Mila milioi pertsona auzotxiroetan bizi dira eta 970 milioi gaizki elikatuak daude. FAOren zuzendariak azaldu duenez, nahikoa lirateke 15 urteetan 20.000 milioi dolar urtero jatekoa ziurtatzeko, baina ehundaka milioi dolar espekulatzailleak irentsiak dira hondotik atera daitezten.

Negutegi efektoak sorrarazten duen gaz kontzentrazioa klimaren berotzera eramanez jadanik eta goraka doa joera, non eta aurreikuspenak zoratzen diren, eta itzulerarik gabeko puntutara eta kontrola ezinezko desorekara azkar iritsi gaitzkeela pentsatzen da. Ondorioak jadanik hemen ditugu eta larriagoak izan daitezke: uholdeak batzuzentzat, lehorraldiak besteentzat, ekaitz suntsigarriak, bizidun espezieen, eta goranzka doaz kopuruak, desagerketa, bioaniztasuna erraustia, nekazaritzako krisiak.

Produktibismo kapitalistak berarekin dakar, airearen, uraren eta nekazaritza ekoizpenen kutsaduraren bidez, gizakien osasunaren degradazioa.

Milioika pertsonen existentzia bera dago zuzen mehatxatua, lehenik populazio

pobreena, hau da, negutegi efektua sorrarazten duen gaz jaulkipenaren erantzule ez direnak, bainan migrazio jendetsuak jasan beharko dutenak.

Erabilera zibilerako energia nuklearra, alternatiba energetiko gisa ezarria, eta erabilera militarerako nuklearra, ingurumenarentzat, osasunarentzat eta langileen, populazioen eta geroko belaunaldien seguratasunarentzat mehatxu izugarriak dira.

Aski dira aipamen hauek munduko antolakuntza kapitalistak uzten digun ordaindu beharreko zor soziala eta ekologikoa argi uzteko. Kutsatzeko eskubidearen inguruko espekulazioa bera ere legez onartua dago gaur egun. Nahikoak dira ere aipamen hauek sistemaren aldekoen diskurtsoa, hau da, progresoak, pausuz pausu eta hurrenez hurren egina, bizibaldintzen hobetze orokorra eta desberdintasunen murrizpena dakarrela diotenean balio gabetzeko. Aitzitik, hazkunde garaietan ere, desberdintasunak geroz eta larriagoak bihurtzen dira.

Frantzian, aberatsenak direnen %10-ak aberastasun nazionalaren %46a du, eta bitartean, INSEE-k dioenez, 2006. urtean 7,9 milioi pertsona pobrezia maila azpitik bizi ziren, hau da, 800 euro baino gutxiagorekin hilean. Azken 20 urteetan, desberdintasunak eta pobreen kopurua handitu dira OCDEko hirutik bi herrialdeetan.

Etekinaren logika eta giza jarduera ororen merkantilizazio geroz et handiagoa (batez ere zerbitzu publikoen kasutan) banaezinak dira. Horrekin doaz ere lurraldeen arteko lehiak, instituzioen artekoak, norbanakoen artekoak, harreman sozialak eta elkartasunezko harremanak birrintzen dituen lehia, bazterketa sorrarazten duena, langileen bizitza hausten duena.

Bizitza baldintzak okerragora jotzen dute. Jabeek kupidarik gabe kanporatzen dituzte langileak, soldatarik ahal den txikiena ordaintzeko mundu mailan langileen arteko lehiak aregotzen dituzte, langileen eskubideak jo ta murriztu nahi dituzte.

Prekarietatearen eztanda bizi dugu. Azpikontratu prekarioak biderkatzen dira, langilegoa mail sozial berritan zatikatzen dute eta lanaren mundua eztanda egiten du: CDD, apendizak, langabetuak, babesturiko enpleguak, ordukako lanak, ordezkioak, ebentualak, RSA etabar... Lan erritmoen bizkortzea eta malgutzeak lan baldintzen degradazioa dakar (sufrimendua, istripuak, gaixotasun profesionalak, suizidioak).

Zerbitzu publikoak eraitsiak; errentagarriak direnak pribatizatuak. Merkatu berriak etengabe bilatzen eta bilatzen aritzeak kontsumoan oinarrituriko eredu maltzur eta manipulazionala ezarri-erazi du. Norbanakoa, horrela, arreta eskatzen dioten eskeintza berrien eta berrien sorkuntzaren menpe gelditzen da, frustrazioa eta sistemarekiko menpekotasuna sorrarazten badute ere.

Babes sozialak atzera egiten du. Erretirorako eskubidea auzitan jartzen da.

Ingurumena degradatu egiten da eta katastrofe ekologikoen mehatxupean gabiltza. Gaurko porrota kiebra jo duen sistema baten ondorio logikoa da. Porrota kontraesan baten emaitza da: alde batetik mugarik gabeko kreditua handitua, zorpeko ekonomia... eta bestetik, merkatua geroz eta murriztuagoa, klase dominatzaileek, errentagarritasun handienaren bila, langabezia geroz eta handiagoa, prekarietatea eta soldaten izozketa ezartzen bait dituzte.

Logika hau berau da finantzako burgesiak, multinazionalak, bankuek, espekulazionalak, beraien aliatu politikoek, gobernuek, beren zerbitzura ari diren nazioarteko instituzioek (FMI, OMC, UE, BCE, Munduko Bankua) aurrera eramanez.

duten borrokaren logika. Horiek dira aurkariak eta horien kontra borrokatu behar da estatuan, europan eta nazioartean.

Kapitalismoaren bilakaerari eta merkatal eremua planeta osora zabaldu izanari dagokio aurrekaririk gabeko krisi ekologikoa. Baliabideen erabilera ez-arrazionalaren ondorioz ingurumenaren krisiei aurre egin behar izan dioten gizarteak izan dira orain baino lehenago, bainan oraingo krisiaren neurritakoa, planetaren biztanle guztiak ukitzen duena eta desberdintasunak puntu honetaraino aregoten duena, ez da inoiz eman.

Munduratzeko kapitalista honetan, pakeruntz joan beharrean, harmagintza gainezka dago eta nazioarteko tentsio eta gatazkak larritzen ari dira. Iraketik Georgiara, Afganistan, Afrika eta Palestina tartean direlarik, botere imperialistek, eta horien artean Frantziak, herrien gaineko dominazioa ezartzen dute, baliabideen iturriak, lehengaiak, petroleoa... kontrolatzen dituzte, geroz eta handiagoa izan dadin multinazionalen etekina, baita harmagintzakoena ere. Bortizkeriazko politika honek herriak zatikatzeko erabiltzen diren nazionalismoaren, erlijio-integrismoaren eta logika komunitarioen gorakada sustatzen ditu.

Horrela, lurralde imperialista batean antikapitalista direnek bere lurraldeko kapital nazionalaren aurka, bere estatua imperialistaren eta bere harmadaren aurka borrokatu behar dute ezerean aurretik. Zentzu honetan, kasuan kasu dagokion herriak eta langileak, herri zapalduen baliabideak eta langileak esplotatzen dituzten entresa frantzesen espropiazioa burutu dezaten defendatzen dugu. Eta zentzu berean han non harmada frantziarra (edo beste estatu imperialistarena) presente dagoen, erresistentzia herrikoia babesten dugu eta harmada imperialisten porrotaren aldekoak gara.

Pakea ezkontezina da sistema honekin: "kapitalismoak bere baitan darama gerra, hodeiak ekaitza dakarren bezala" (Jean Jaurès).

Politika hau da klase kapitalistak egiten duena eta merkatu-ekonomiara biltzen eta egokitzen diren eta goraiatzen duten, eta esplotazio sistemaren mantentzearen alde diren partidu eta gobernuak, ezkerrekoak zein eskuinekoak izan, politika horretara bildu daitezela agintzen die Jendeak ezin du egiten diren politiken inguruan edota politika horiek aurrera daramaten hautetsien inguruan inolako kontrolik eraman, eta gainera mas-media eta prentsaren konplizitate osoa dute, izan ere horiek ere nagusien ideologiaren zerbitzura eratutako talde mediatiko handien eskutan bait daude.

Guk, borroka politikoan aintzina jotzeko, eskubide demokratikoak erabiltzen, defendatzen eta bizi-arazten ditugu. Ez da posible gaurko estatua eta instituzioak eraldaketa politiko eta sozialaren alde jartzea. Organismo horiek, burgesiaren interesen defentsara egokituak, irauliak behar dute izan, jendearen eta langileen kontrolpean eta zerbitzura jarritako instituzio berriak osatzeko. Kapitalismoaren biolentzia, bada ere klase-justizia, biolentzia poliziala: auzotxiroetako oldarraren eta gazte edo langileen manifestazioen errepresioa, paperik gabeko haurren kriminalizazioa eta sistemaren aurka borrokatzen duten guztiena; poliziak eta epaileek, nonnahi, zapalkuntza-gizarte hau defendatzen dute.

Sistemaren logikak baliorik gabe uzten ditu sistema moralizatzeko, erregulatzeko edo erreformatzeko, hitz batez sistem gizatiarragoa egiteko itxurasmok, asmo zintzoak edo hipokrita hutsak izan. Sistemaren logikak, hala bada, beraren iraultketaren, gizartearen eraldatze iraultzailearen baldintzak sorrarazten ditu, egunoro frogatzen bait du zein punturaino den egia ongi-izatea, demokrazia, pakea... batera ezinak direla produkzio bitarteko handien bakarjabetza pribatuarekin.

2.- Bestelako mundu bat posible da: XXI. mendeko sozialismoa

Munduko populazioaren gehiengoa langilez osatua dago, esku-langileak izan edo langile intelektualak izan: bere lan-indarra baizik ez dutenak, jeneralian soldata baten truke saldua, lanpostua eduki edo gabetuak egon, lanean egon edo erretiroan.

Preskatuntzan dauden gazteen artean gehiengo ia erabatekoa langileen klasearen parte izatera doaz ezinbestez.

Soldapekoentzat eta populazio esplotatuarentzat orohar, beste iretenbiderik ez dago porrotean sartu den sistemaren erroetara jotzea baizik. Ez dago kapitalista "ona" produkzio eragilea, kapitalista finantziaria maltzurari aurka egiten dionik. Industriako kapitala eta finantzan dagoen kapitala aspalditik daude elkarrekin nahasiak. II Munduko Gerra ondorengo booma bukatu zenean etekin tasa erortzen hasi zen eta lurralde "garatuen" burgesien erantzuna mundializazio kapitalista izan da.

Azken hiru hamarkadetan, langileen diru-sarrerak behera joan dira akziodunen onurarako (1982an, akziodunen dibidendoak soldata guztien %4,4 ziren; gaur egun %12a). Hori horrela izanik, geroz eta zailago zaie kapitalisteei ekoizten dituzten merkantziak erosiko dituen merkaturik aurkitzea. Egoera hau da kapitalistak bultzarazi dituen espekulaziora jotzera, eta horrela areagotu da kapitalismoak finantziarizaziorako duen berezko joera.

Kapitalismo "gizatiarrago" batera itzultzea jomugatzat artzea edozer izango da salbu eta errealista. "Hogeitamar aintzagarriak"-en garaian jabeen nahikeriak mugatuak eta neurtuak izan ziren, horrela geratu da memorian gordea, baina egoera hori, batez ere, indar harreman zehatz baten, klase borroka eta iraultzen bidez eraikitako indar harremanaren emaitza izan zen. Ez da gainera ahaztu behar, hartara iristeko, 1930eko depresio handia igaro behar izan zela eta faszismoaren eta gerraren horroreak sufritu behar izan zirela.

Krisisekin bukatzeko esplotazioarekin bukatu behar da, hau da, produkzio-, merkataritza- eta komunikazio-bitarteko nagusien jabetza pribatuarekin. Horiek bait dira esplotazioaren oinarria. Finantza-sistema, bizitzarako oinarriko zerbitzuak, entpresa handiak populazioaren eta langileen kontrolpera pasa behar dira, hauek beregain hartuko dute jabetza eta planifikazio demokratikoaren baitan ziurtatuko dute kudeaketa. Jabetza kapitalistatik libratuak, produkzioa eta aberastasunen banaketa gizarte osoaren onurarako izango da. Elikatzea, berotasuna izatea, etxea, norberaren zaintza, hezkuntza, espirtua lantzea, ibiltzea...premiatzko beharrak dira eta denontzako bermatuak egon behar dira.

Sozialismoa, ekosozialismoa, langileen boterea da, alor guztietan eta bizitza politiko, ekonomiko eta sozialaren maila guztietan. Langile elkartuen demokrazia da, libreki eta soberania osoz erabakiz zer, nola eta zein helbururekin ekoiztu. Ekonomiaren eta gizartearen horrelako berrantolaketa lanaren askapenaren lehen urratsa da, langile eta herritarren taldeek enpresen eta auzi publikoen kudeaketa benetan bere gain har dezaten, urrats ezinbestekoa. Lan-denboraren murrizketa handi bat, aurrerapen teknologikoei esker egingarria dena, eta langabezia uxatzea, eta guztion arteko lan-banaketa izango dira behar hori asetzeko funtsezkoak.

Esplotazio eta opresiotik askaturiko gizartean gaixotasunik edo osasun arazorik izango dira, noski, baina defendatzen dugun osasuntsu izateko eskubidea, batez ere, osasun egoera txarraren jatorria prebenitzera zuzendua dago. Izan ere etekin handienaren

bilaketan oinarrituriko gizartea da gaitz askoren iturria: laneko istripuak, estresa eta gaixotasunak, produkto toxikoekin lan egin beharra, kalitate txarreko elikagaiak, kutsadura...

Gainontzeko giza-ekoizpenak bezala, sorkuntza kultural eta artistikoak ez dira autonomoak. Gatazka ideologiko eta politikoez zeharkatuak daude. Sistema kapitalistaren kritika erradikala, serio eta zuzena ezin da egin kultura, arte eta medietako kritika erradikalarik gabe, azken hauek bait dira ideologia nagusiaren morroiloak, eta ondorioz, guztion askapenerako traba garrantzitsuak. Kapitalismotik libre dagoen gizarteak sorkuntza horietara hurbiltzeko bideak jarriko ditu norbanako guztientzat eta kulturaren merkantilizazioarekin bukatuko du. Kulturaren, artearen eta komunikabideen berreskurapen demokratikoa lehen mailako erronka da.

Sozialismoak ez du zer ikustekorik, noski, talde sozio-liberalen politika kapitalistekin, hala nola, Frantzia "sozialista" izenez ezagutzen den partiduarekin. Modu berean erabateko ukoa altxatzen du diktadura burokratikoaren aurrean. Horiek, URSSetik Txinaraino, izena bere egin badute ere, ezabatu nahi omen zituzten esplotazio eta opresioaren mekanismoak berreraiki dituzte eta produktibismoaren alde ankerrenak garatu dituzte. Gizartearen autoeraketa eta autogestioruntz joan nahi dugu eta honek politikoki, sindikal mailan eta elkartzeko arloan antolatzeko eta eritziak adierazteko askatasunik zabalena behar du. Erregimen kapitalistaren pean lortu ahal izan diren askatasun demokratikoak sendotuak eta garatuak izango dira. Sozialismoa demokrazia benetakoaren eta zabalaren erreinua bait da.

Kapitalismo produktibo onik ez dagoen bezala, ez dago ere "kapitalismo berde" onik. Krisis ekologikoari stop egiteko, honen ondorio katastrofikoak hasi bait dira biderkatzen, kapitalismoarekiko haustura ezinbesteko baldintza da, haustura horrek bakarrik ahalbideratuko bait ditu aukera ekonomiko demokratikoak eta arrazionalak, gehiengoaren interesen arabera eginak. Gizartearen organizazio berri baten baitan, zeinean helburua erabilgarritasun soziala izango den eta ez etekin pertsonala, ekoizleek eta herritarrek, autonomiaz eta erantzunkizunez jokatu, gizatalde osoaren onurako diren jardura ekonomikoak garatea erabakiko dute, eta populazioa eta ingurumena arriskuan jartzen dituztenak baztertu dute. Guk nahi dugun sozialismoak ez du produkzioaren mugarik gabeko hazkunde proposatzen, aitzitik oinarrian du behar sozialen asebetetze ekologikoa: eksozialismoa da. Kapitalaren diktaduratik askaturiko gizarteak soilik egongo da gizakia eta natura adiskidetzeko neurrian.

Pertsona guztien garapen indibiduala lagundu eta bultzatuko duen gizarte-organizazio sistema bat nahi dugu, "elkartze bat non bakoitzaren garapen librea izango den guztien garapen librearen baldintza" (Manifestu Komunista. Marx de Engels. 1848), non gizakia helburutzat eta ez bitartekotzat hartua izango den. Sistema kapitalista dominazio arau multzo batean oinarritzen da eta populazioaren jerarkizazioan; horrela, gutxiengoak, moralaren presiopean, estigmatizazioaren mehatxupean, baztertuak izateko arriskuan, eta baita, ezarritako ordenari eta arau horiei men egiteari uko egiten diotenean hitzeko bortizkeria, bortizkeria moral eta fisikoa jasateko puntuan aurkitzen dira.

Sozialismoak zapalkuntza guztien amaiera esan nahi du, arrazismoarena eta edozein diskriminazio motarena; kulturekiko, hizkuntzekiko, aukera sexuarekiko, eritzi filosofiko, erlijiosoekiko begirunea, eta administrazio eta botere publikoen laiktasunaren onarpena.

Bereziki, emakumeen zapalkuntza bereziarekin bukatzea esan nahi du. Egia da kapitalismo baino lehenagokoa dela emakumeen zapalkuntza, baina kapitalismoak zapalkuntza hori bere helburu propioetarako bereganatu eta erabili izan du. Zapalkuntza hau gizartearen maila eta alor guztietan txertaturik dago eta klase sozial

guztietan modu desberdinetan hedatua dago. Emakumeen zapalkuntza gainontzeko dominazio mota guztiekin inbrikatua dago: klase zapalkuntzarekin, arrazismoarekin, edota arau heterosexistarekin bat ez datozen pertsonen aurkako bortxakeriarekin.

Ezein gizaki ez da libre izango baldin eta gizadiaren erdia menpekotasun egoeran jarraitzen badu, lanaren banaketa sexualera egokitua, enpresetan eta bizitza politikoan bazterkeria jasaten, lanegun bikoitza egin beharrean, familia patriarkalaren menpe, etxe barruan, lanean edo kalean bortxakeriaren biktima etabar... Jasaten duten zapalkuntzaren aurka emakumeek aurrera daramaten borroka dominazio kapitalistaren aurkako borrokaren funtsezko aldea da. Sozialismorik ez da izango emakumearen askapen osorik gabe. Eta emakumeen askapenak, bereziki herri xehearen emakumeena, etekinaren legearen erreinuarekin bukatzea eta behar sozialak asetzera zuzenduriko eta horretan oinarrituriko gizarte berri bat eskatzen du.

Sozialismoa, halaber, internazionalista da. Esplotazio eta menpekotasun imperialistaren harremanekin bukatzea eskatzen du. Frantzia neokolonialak Afrikan, Ixasoz-haratago eta bestetan mantentzen dituenak, esate baterako. Sozialismoak herrien autodeterminaziorako eskubidea defendatzen du, eta elikaduraren eta uraren inguruko burujabetasuna. Hau da, herri bakoitzak bere geroa erabakitze duen eskubidea defendatzen du, eta herri zapalduen askapenerako borroka babesten ditu, eta hasteko eta lehenik Frantziaren menpeko azken kolonietako askapen mogimenduak. Jakin badakigu ere ezingo dela sozialismoa hexagonoaren mugen barnean bakarrik eraiki. Frantzia, edo inguruko lurralderen batean, garaipen antikapitalista ematen denean, berehala izango luke Europara zabaltzeko eta mundu osora zabaltzeko nahia eta premia.

3.-Gure bizitza, ez haien etekinak

Gaur egungo borroketan proposatzen ditugun helburuen bidez premia sozial, demokratiko eta ekologiko larriei erantzun nahi diegu.

Ez da beherapenatarako programa minimoa, mobilizaziorako helburu batzuk baizik, sistema bera auzitan jarri eta nahi dugun sozialismoa prestatzen dutenak. Premiazko programa bat defenditzen dugu. Eta berehalako beharrei erantzuna ematen duelako auzitan jartzen du produkzio bitartekoen bakarjabetza kapitalista, eta soldatak, erretirodunen pentsioak, gutxieneko sozialak igotzeko eta herriaren beharrak asetzeko kapitalari eta bere etekinei aurre egiten dio.

Programa honek lanaren emaitzaren jabetza soziala azpimarratzen du talde kapitalista handien, CAC 40koetatik hasita, eta zerbitzu eta lan-eremu funtsezkoen indemnaziorik gabeko expropiazioa proposatuz, soldatapekoen eta populazioaren kontrolpean jartzeko.

Zenbait alor, ondasun publiko amankomun eta mundial gisa balioetsi behar dira: osasuna, hezkuntza, ura, energiak, garraioak, telekomunikazioak, posta, haurtzarora eta laugarren adinekoa. Zerbitzu publikoak behar dute izan, soldatapekoek eta erabiltzaileek kontrolatuak eta kudeatuak, eta helburu bakar batekin: guztion behar sozialak osotasunean eta berdintasunean (erabiltzeko erreztasunean eta prestazio mailan) asebetetzea.

Lana ez da merkantzia bat, soldatapekoak ez dira egokitu daitezkeen aldagaiak, lan kanporatzea debekaturik egon beharko luke eta horrelakotan setatzen diren enpresak errekisatuak izan ahalko dira. Soldata mantendu behar da gaixotasun alditan, hala nola langabezian, erretiroan edo prestakuntzan egonik ere, babes sozial integral baten bidez.

Guretzat demokrazia ez da enpresen atarian gelditzen, eta soldatapekoak dira erabaki behar dutenek lan baldintzak eta lan antolakuntza.

Gaur bezala antolatua dagoen lana, langileen osasunaren aurkako eraso da. Langabezia handia patronalari baizik ez dio onik egiten: lanorduak murriztu eta banatu behar dira langabeziarekin bukatu arte.

Ekologia, feminismoa, LGBTI borrokak, arrazakeriaren kontrakoak, antifaxistak, internazionalismoa, bazterketa eta zapalkuntza mota guztien aurkako borrokak, ezinduak diren edo gaixo dauden pertsonen bazterketaren kontrakoak, belaunaldien arteko elkertasuna ez dira bigarren mailako jarrerak eta ekimenak, gure egitasmoaren bihotzean aurkitzen dira.

Larritasun ekologikoak mugarik gabeko hazkunde suntsitzailea, natura gizadiaren menpe erabat jartzea eta edozein produktibismo mota baztertzea eskatzen digu. Auzi klimatiko, energetiko eta elikagaien ingurukoan, planetaren desegitearen logikaren ordez planifikazio demokratikoaren logika behar da. Gaur egungo produkzio eta kontsumo moduen aurka, ekonomiaren berkokatzea proposatzen dugu, aberastasunaren banaketa, berriztagarriak ez diren baliabideen kontsumoaren gutxitzea eta energia-irensleak edo baliagarritasun gabeak, edo kutsagarriak edo arriskutsuak diren sektoreak, eta bereziki nuklearrak kuestionatzea.

Ura, airea, lurra eta bizidunak ondare amankomunak dira eta ezin dira pribatuak bihurtu.

Horien erabileraren kudeaketak eta zainketak gure arduren bihotzean behar du egon. Horregatik garraioak, ura, energia zerbitzu publikoek kudeatuak behar dute izan eta langileek eta erabiltzaileek kontrolatuak, behar sozialak asetuz, baliabideak ekonomizatuz eta ingurugiro babestuz.

Energia nuklearra ahal den azkarren baztertearen aldekoak gara. Nekazaritza ez da gelditu kapitalismoaren ondorio suntsitzaileetatik kanpo, nekazariak sakrifikatuak izan bait dira nonnahi munduan zehar nekazaritzako negoziotzarren eta espekulatzailen aldean.

Premiazko eta larria da elikaduraren burujabetasuna ezartzea, premiazkoa lurrari bere eginbeharra berriro itzultzea: elikagai osasuntsu eta kalitatezkoak ekoiztea; landa-lurraren eta lur osoaren begirunezko erabilera egitea.

Nekazariak mantentzea, ugaritzea eta horiek landa-eremu bizigarri batean lan eginez bizitzea, landa-eremuan sare soziala berreraikitzeke lagungarri izango da.

Partidu Antikapitalista Berria edozein Genetikoki Aldatutako Organismoen produkzioaren aurka dago.

Zapalketa kapitalista bereziki gogorra da auzotxiro herrikoietan, han biltzen bait dira biztanlerik baztertuenak, askotan etorkinak jatorriz, diskriminatuak, estigmatizatuak, bortxakeria polizialaren biktimak (eta ez gazteak soilik).

Sexismo, desberdintasun eta emakumeen aurkako bortxakeria forma guztien aurkako borroka, emakumeek beren gorputzaren jabe izan daitezzen (abortatzea eta antisorgailuak erabiltzea aske eta dohain), kalitatezko zerbitzu publikoen garapenaren alde, emakumeen zapalkuntza eta lanaren banaketa tradizionalaren aurka dagoen gizarte baten antolakuntzaren alde...gure egitasmoaren ezinbesteko parteak dira.

Beren eskubideen aldeko emakumeen auto-antolakuntza soilik, gainontzeko mogimendu sozialekin batera (harremanak izan badaitezke ere tentsioz zailduak), prestatu dezake dominazio maskulinoaren menpetik askaturiko gizarte baten agerpena.

Partiduaren maila guztietan emakumeek badute aukera elkarrekin, gizonezkorik gabe, biltzeko, horrela baderitzote. Bilera hauek, unean unekoak edo erregulariki eginak, partiduan kultura antisexista baten garabidean tresna garrantzitsuak izan daitezke.

Lesbiana, gay, bis, trans eta intersexualak diren pertsonak jasaten dituzten zapalkuntza eta bortxakeria eta bazterte guztien aurka borrokatzen dugu. LGBTI pertsonentzat eskubide berdintasun erabateko eta osoa eskatzen dugu. Zapalkuntza horiek generozko arau heterosexualarekin bat ez datozen nortasun eta sexualitaekiko gorrotoa adierazten dute.

Ezinduek bizitza sozialean jasaten duten bazterken aurka borrokatzen dugu. Lanean, eskolan, prestakuntza ikasketetan, etxebizitzan, garraioetan, kultura gaitan eta aisialdi eta zainketan parte hartzeko bideak irekiak behar dituzte. Laikotasunaren erizpidearekiko atxekimendua baieztatzen dugu, bereziki Elizen eta Estatuaren arteko banaketa zehatzari dagokionean.

Jakintzara hurbiltzea, prestakuntza, hezkuntza laiko eta dohainekoa defendatzen dugu gazte guztientzat. Bainan eskola eta hezkuntza-sistema desegokitua salatzen dugu, ideologikoki manipulatzera eta klase sozialen birprodukzioa bermatzera zuzendua bait dago.

Emantzipazioaren eragile izango den hezkuntza batera guztiok hurbiltzea ez da baliabide gehiago izatera mugatzen, eta ez da eskubide abstraktoez dekretuez betetzen. Eraginkorra izateko, bakoitzak, edozein delarik bere adina, bere nahiak bultzaturik edozein eremutan ikasketak egiteko posibilitatea zihurtatua behar du izan, eta ikasten berriro hasteko edota jarraitzeko bakoitzaren askatasuna tratatzen duen ezintasun finantziarioak edota diru-sarrerakoak gainditu behar dira.

Hizkuntza gutxiengotuak onuragarritzat ditugu eta beraien biziraupena eta garapena ziurtatuko duen politika bat egitearen aldekoak gara.

Gazteriaren zapalkuntzaren aurka gaude, bai familian eta baita lantokietan ere. Langile gazteek jasan behar dute gogorren lan prekarioaren gorakada (CDD, ebentualitatea, ordaindu gabeko prestakuntza lana, ordukako lan ezarria, langabezia). Jabeen aldeko indar-harremanen ondorioz, egoera hau benetako pagotxa da enpresentzat, eskura bait daukate horrela edozein lan eta sari baldintzak onartzeko prest dagoen lan-indarra.

Auzotxiroetako edota etorkinen seme-alaba gazteak, gaitz guztien erantzule gisa hartuak direlarik, bazterketa eta estigmatizazioen biktima izatea salatzen dugu. Arrazismoarekin bukatzeko arrazismo, xenofobia eta hortik datozen bazterketa mota guztien aurkako mobilizazio eta neurri erradikalak gizartearen baitan ixurtzen den pozoinaren neurrikoak behar dira izan. Frantziarrentzat eta etorkinentzat eskubide berdintasuna, botoa emateko eskubidea, nonnahi bizitzen jartzeko eta ibiltzeko askatasuna, eta paperik gabeko guztien erregulazioa barne direlarik.

Populazio nomadaren bizimodua onartua behar da, zirkulatzeko txartela kendu eta boto emateko eskubidea onartu behar zaie.

Partidu Antikapitalista Berriak zapalduen autoorganizazio erak sustengatzen ditu,

amankomunean jasaten duten zapalkuntzaren kontra eta beraren desagertzea lortu arte biltzen bait dira. Zapalketa hori arrazista, sexista, homofobia edo xenofobia delarik ere.

Antirazismoa kolonizatutako herrien historiaren eta beraien erresistentziaren transmisioa ere bada.

Esplotazio eta zapalkuntza era guztiei buruz esandakoaren gain, PAB-k errotik kolonialismoaren aurkakoa da. Eta hasteko kolonialismo frantziarraren aurkakoa, bere azken kolonia zuzenetan (botereak ofizialki "DOM-TOM" deiturikoetan) zigortzen jarraitzen bait du. PABek kolonia horietako herrien baldintzarik gabeko autodeterminazio eskubidea sustengatzen du. Aipaturiko herri horien askapen nazionalerako borroka aitzakirik gabe sustengatuko ditu. Elkartasun harreman estuak landuko ditu, begirunean eta berdintasunean, bereziki esplotazio eta zapalkuntza guztietatik gizadiaren emantzipazioaren aldeko balioak funtsean konpartitzen dituzten kideekin.

Gure egitarauak baditu ere exigentzia demokratiko erradikalak instituzio errepresiboen joera eta gehiegikeriei (polizia, epailaritzak, presondegiak, armada...), pobrezia eta mugimendu soziala kriminalizatzen dituzten segurtasun eta presondegi-tako politikari aurre egiteko, eta jendea zelatatze, kontrolatzeko eta askatasunak mugatzeko logika hazkorraren aurka borrokatze.

V. Errepublikaren instituzio antidemokratikoekin bukatu nahi dugu (hautetsien errebohabiltatea, ordezkapen proportzionala asanbladatan...).

Noski, haustura-egitasmoa defendatzen duen gobernu batek hartuko lituzkeen neurriak bestelako Europa baten aldeko mobilizazioetan sartzen dira, Europako Batasunaren instituzioekin erabateko hausturatik sorturiko Europa, populazioaren behar sozialak asetzea eta ipar/hegoaren arteko harremanak errotik eraldatzea helburutzat izango lukeen Europa.

Nazioarteko mailako mobilizazioak eta borroka egitea premiazkoa da, ikusirik kapitalistak, beraiek, nazioarteko mailan organitzatuak daudela langileen eta herrien interesen kontra geroz eta paper garrantzitsuagoa jokatzen duten instituzio multzo bat bait daukate: Europako Banku Nagusia, Kooperazio eta Garapen Ekonomikorako Erakundea, FMI, Munduko Bankua, OMC, OTAN... Instituzio internazional hauekin bukatu nahi dugu.

Historiaren bidea aldarazteko, populazioaren gehiengoak, langilegoa eta sektore herrikoiak, duten aniztasun guztiarekin, bere indarraren kontzientzia hartu behar du, lantokian edota auzoan organitzatuz, sindikatu batean edo elkarterean batean, eta eginkizun politikoetarako ere, bere eskubide demokratikoak egikaritu ahal izateko. Egitura guzti horietan, PABko kideak gatazketan et borroka antikapitalistetan batasuna sustatua izan dadin ahalegintzen dira. Egitura horien independentzia eta burujabetasuna osorik eta zintzo errespetatuz.

Mugimendu sozialean garatzen da kontzientzia, mundu berri baten ideia lantzen da, eskaera herrikoiak asebetetzeak gizartearen gidaritzaren auzia planteatzen du.

Eskaera horien konbergentziak planteatzen duen auzia hauxe da: langileek eta populazioak kontrolatu behar du lantoki eta gizartearen bilakaera.

Mobilizazio ahal den baterakoiaren aldekoak gara, mugimendu sozialaren korrante politiko, sindikatu, elkarte guztiak batuz.

Horietan, autoorganizazioaren erizpidea defendatzen dugu: funtsezkoa da ekiten dituzten horiek izatea norabidea, borroka motak eta zuzendaritzakoak zein izango diren erabakitzen dutenak.

Borroken garapen eta zabaltzearen bidez, greba orokor eta luzeen bidez erasoei aurre egin dakioke, erreibindikazioak lortu. Mobilizaziotik sorturiko indar-harremanak, sistemarekiko haustura bermatuko dituzten neurri erradikalak hartuko dituen eta gizartearen eraldaketa iraultzaileari ekingo dion gobernu bat altxatzea ahalbidetuko du. Sistema kapitalistarekin bukatzeko beharrezkoa da aldi berean, epe luzearako burnizko besoa izatea, kopuruaren indarrarekin kontatzea eta klase dominatzaileen zerbitzura jarritako Estatu eta bere instituzioekiko, instituzio europearrekiko eta mundu mailakoekiko haustura.

4.- Antolatu, ekimenak bultzatu, politika egin, emantzipaziorako partidu bat. Partidua pentsamendua eta ekintza lantzen duen talde bat da eta gizarte egitasmu amankomuna defendatzeko libreki elkartzeko erabaki duten horiek biltzen ditu. Partidu gisa antolatzea erabaki badugu eraginkortasunez, antolaturik eta koherentziaz jokatu nahi dugulako da. Borroka sozialak ordezkatu gabe, horiek bultzatu behar ditugu, horietan osorik parte hartu, geure ideiak proposatu eta gure ekintza-proposamenak egin, jakin bait dakigu kapitalisten ofentsiba geldiarazteko, alor sozial, demokratiko eta ekologikoetan aurrerapenak lortzeko, sozialismoari bidea irekitzeko mobilizaziorik zabalena behar dela.

Instituzioetako ezkerreko partiduek (PS,PC) eta aliatu Berdeek aspalditik alboratu dute ikuspegi hau. PS eta PCF ez dute sozialistatik eta komunistatik izena baino. Berdeek kamustu dituzte beren askogura ekologistak.

Boterean kokatzen denean, ezkerreko instituziozaleak bizkarra ematen die herriaren nahiei.

Oposizioan, berriz, eskubiaren eta gobernuaren erasoan aurkako erantzuna ez dute antolatzen.

Krisian hondoratua eta oinarri militante eta elektorala etengabe galduz, PCF PSk erabilia da geroz eta gehiago. Haatik bada partidu honetan indar militantea geure buruketako batzutan ondoan aurkitzen duguna.

Kapitalismoaren neurritz kanpoko krisiaren aurrean, ezkerreko instituziozale honen erantzun politikoak, sistemarekin hausten ez dutenez, ezingo dira jokoan dagoena eskatzen digunaren mailan egon.

Korrante hauek ez dute jadanik eskeintzen ez egitasmu askatzailerik ezta itzaropenik ere, eta horregatik doaz atzeraka.

Oraingo krisi honek agerian jartzen du fenomeno hori, baina ez da koiunturako gauza. Arrazoi sakonagoak daude jokoan: neoliberalismoarekin egokitu dira azken honen tesiak ontzat hartuz; zuzendaritzetako kideak ez dira klase dominantearengandik bereizten, PS-k berak sistemaren barruan erreforma aurrerakoiak egiteari ere uko egin dio.

Sistema kapitalistak berezkoak dituen kontraesanak eta oraingo krisiak begibistan uzten ditu hautaketaren bi aldeak: pribilegiatuen minoritarien men egin edo horrekin hautsi.

Ezker instituziozalearen baitan eta inguruan asko dira gizartea errotik aldatzeko asmoari eutsi egiten diotenak.

Horiekin, hala nola langile guztiekin, bestelako oinarrien gain, kapitulazioekin eta zapalduen ordezkaritza politiko berria sortzeari ezker honek egiten dio ukoarekin bukatuz, partidu antikapitalista berri bat eraiki nahi dugu, partidu bat sistemaren kontra azkeneraino borrokatuko duena, gizartearen aldaketa iraultzailearen aldeko partidu bat.

Partidua ez da berez helburua. Elkartzeko, borroka kolektiboan eraginkortasuna irabazteko tresna bat da.

Bi eginbehar osagarri ditu: borroka sozialak bultzatu, gaur egungo zuzendaritza sindikalen kolaborazioari aurre eginez klaseko sindikalgintza zabala eratuz, mogimendu sozialaren organizazio modutan parte hartuz; eta partidu politiko bat eratu emantzipazio egitasmo globala defendatzeko.

Partidu Antikapitalista Berria guztiz demokratikoa nahi dugu, nahi dugun gizartearen arabera. Edozeinek har dezake hartan bere lekua, edozein delarik bere inplikazio maila. Denok maila berdinean egongo gara erabakiak hartzeko orduan, zuzendaritza batzordeak agindutakoa bete beharko dute, kontrolatuak eta aldagarriak izango dira. Prestakuntza politikoa antolatua izango da, eta gehiengoak ekimenak burutzeko duen eskubide berberarekin ikuspundu desberdinak azaltzeko eta defenditzeko bermea izango da.

Gure partiduak burkide guztien heziketa iraunkorrarako gunea izango da, heziketa herrikoiarako gunea eraiki nahi dugun gizartearen auresperientzia. Gure partiduak, bada, elkartasun gunea izango da.

Iraganetik ikasiz, burokratizazio prozesuen aurka borrokatuko dugu, emantzipazio mogimenduen izurriteak bait dira horiek. Eta gure zaintzapeko lehena Partidu Antikapitalista Berria bera izango da.

Partidu Antikapitalista Berria eraginkorra nahi dugu, baliagarria segituan, lurralde osoan presente auzo herrikoi eta txiroetan, fabriketan borrokarako eta erresistentziarako baliagarria, gazteen ondoan borrokaren lehen lerroan gazteen bizitasuna askotan langileak borrokara eramateko pizgarria izaten baita.